

OSTIRALA, 2025eko EKAINAREN 20a

San Martzialak

IRUN

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Luzerako festa giroa Irunen

**San Pedro eta San Martzial Festak
astelehenean hasiko diren arren,
jada jai giroa suma daiteke Irunen.
Asteburuan bada zertaz gozatu • 20-26**



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



www.goieko.com

Sanmartzialetan
gozatu!

Berdintasunaren aldeko borrokara batu da Meaka

Meaka konpainia sortzeko auzoan babesa lortuta eta etxeko lanak eginda, Irungo auzo zaharrenetarikoak badu bere konpainia. Bigarren saiakeran eratu dute taldea.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

Hogeita zazpi urte igaro dira Meaka konpainia sortzeko lehen saiakera egin zutene-tik eta azkenean, konpainia sortzea lortu dute 2025ean. Horren bestez, aurtengo Alardean desfilatuko dute lehenbizikoz hilaren 30ean. Alarde parekidearen sorreratik gaur egunera Alardearen gatazka politikoak ebolu-zioa eduki du: tentsioa jaitsi egin da. Karmele Tolosa konpainiako kidearen esanetan, aldaketa hori nabarmen-tzekoa da Meaka konpainia sortzeko

bidean. «Oraingo belaunaldiek duten ilusioa ez dut inoiz ikusi, eta horrek ere urduritasuna sortzen dit, esperientzia dudan arren», aitortu du. Tolosak lau konpainiaren sorreran egin du akon-painamendua, eta badu hasieretan es-perientzia. Meakakoa hamahirugarren konpainia izango da Alarde Parekidea-ren historian.

Meaka konpainiak etxeko lanak egi-nak ditu dagoeneko, eta Nagore Olas-koaga Alsua izango da kapitaina. Hare-kin batera mando lanetan arituko dira Nerea Pino Rivas, Anne Gomez Amiano eta Amaia Pino Rivas. Karguak kargu, konpainia oso bat dago antolaketaren atzean eta hura sortzeko lehen urratsa auzotarren babesa ea izango zuten ja-kitea izan zen.

Olaskoagak gogorarazi du iaz galde-tegi bat pasa zietela auzotarrei, kon-painia sortuko balitz ea parte hartuko luketen neurtzeko. «Hainbat pertsonak baiezkoa eman ziguten eta gero jende gehiago batu zen», oroitu du. Konpro-misoak lortu dituzte, eta 100 meaka-rrek konfirmatu dute euren auzotik irtengo direla desfilatzen. «Baina hila-ren 30era arte ez dugu jakingo benetan zenbat izango garen konpainian, eta horrek urduritzen gaitu», adierazi du tentuz kapitainak. Dena den, betetzen zailenak diren lerroak beteko dituzte-la aurreratu du, eta horrek, kontrara, «lasaitasuna» ematen die. «Kristoren gogoia dugu eguna iristeko, egunaz go-zatzeko, eta egindako lanaren emaitza ikusteko», azaldu du Olaskoagak.

Lehen entsegua joan den asteazke-nean egin zuten, eta hurrengoa gaur

ALDAKETA
 **Psikogunea**
PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZA
HAURRAK-NERABEAK-HELDUAK-BIKOTEAK
Olatz Elizondo Cuñado ■ ■ ■ **Maite Elizondo Cuñado**
- PSIKOPEDAGOGOA - **- PSIKOLOGOA -**
Luis Mariano 4- 1.B - 20302 IRUN - 943 631 572 / 664 422 440

Gora Sanmartzialak!


Jaietan ere
Ficoba zuekin batera


F I C O B A
ficoba.org

(ostirala) izango da 20:00tan Borda Txikitik abiatuta. Hurrena, leku eta ordu berean, hilaren 24an. Kapitainak auzoko jendea animatu du entseguetan parte hartzera eta sustengua erakustera, «denok disfruta dezagun».

«Busti» daitezela

Irungo Udalak Alardea berriro guztiz publikoa izateko duen ardura hizpide, ea udalak berriro desfilea antolatzeke asmoa duen galdetu dio HITZA-k Cristina Laborda alkateari, eta ez du ardura hori hartzeko asmorik adierazi. Haren arabera, Alardea ulertzeko «bi modu» daude, eta bi modu horiek «elkarbizitzan daude», eta «elkar errespetatzen dute». Gaineratu du uztailaren 1ean irakurtzen duten «berri garrantzitsuen» festak «dir-dir» egiten duela dela. Meakako kide Tolosak, baina, alkateari gogorarazi dio haien ardura dela Alardea antolatzea.

Kapitainak erantsi du udaletxeko balkoitik harrera egitearen keinua, «keinu» bat dela soilik. Eskubidez hitz egiten ari direla argi dio Olaskoagak, eta jaiak ere eskubidez hitz egitearen parte direla. «Berdintasunean parte hartzeko eskubidea Irungo hiritar guztiona da, eta udala Irungo hiritar guztiontzat dago. Horregatik eskatzen diogu Alarde publiko bat antolatzea», aldarrikatu du Olaskoagak. Aurten behintzat udalak ez du Alardetik antolatuko. «Udalak ez du apusturik egiten Alarde publiko baten alde, eta guk hori eskatzen dugu, busti daitezela eta Alarde publikoa antola dezatela», berretsi du. ■



Konpainiaren karguak hautatu zituzten eguneko irudia. Alarde publikoa

Ongi pasa festetan!

belarrakekodenda@gmail.com

943 50 18 40
688 806 747

@belarrak.ekodenda

Foruen kalea 15
20302 - IRUN

Aldabe Mendia, 31 • 20301
IRUN

Elizalde Herri Eskola • 20180,
OIARTZUN

943 61 88 39 / 615 79 05 10

@auntxa_trikiti_eskola

Auntxa Trikitixa Eskola

Gora Sanmartzialak!

info@auntxatrikitieskola.com
inaki@auntxatrikitieskola.com

WWW.AUNTXATRIKITIESKOLA.COM

Zure konfiantzazko optikan zaude!!

bidaso
optika

www.bidasooptika.es

IRUN - Nafarroa Etorbidea, 21 - 943 63 01 93 - 605 70 84 34
info@bidasooptikayaudio.com

- Gure optikan beharrezko balorazio optometrikoa egiten dizugu.
- Gainera, zure ikusmen arazorako aholku pertsonalizatua emango dizugu.
- Marka ezberdinetako gamma zabala armazoietan
- Presio eskuragarriak urte guztian
- Aldi-lakako azterketak garrantzitsuak dira gaixotasunak saihesteko
- Haurrentzako azterketak eskola porrota ekiditeko
- Terapiak bisuala

Ehun urte izaki fantastikoekin desfilatzen

Mende bat beteko da aurtu San Pedro egunean Irungo Atsegiñaren buruhandi eta erraldoiak udal korporazioarekin batera meza nagusira joaten hasi zirenetik. Junkal elizako ekitaldi horren ondoren, herri-tarrei dantza egiten diete udalbatzako kideek, eta erraldoiak eta buruhandiak ere bertan egoten dira. Irungo jaieta-ko egun esanguratsuenetakoa da hila-ren 29koa, eta izaki fantastiko horiek «tradizio partekatu baten forma har-

**Irungo Atsegiña
konpartsaren
buruhandi eta
erraldoiek ehun
urte beteko dituzte
San Pedro eguneko
udalbatzaren desfilean
parte hartzen.**

ALAINA ARANBURU ETXEGOIEN

tzen» lagundu dutela uste du Irungo Atsegiñak.

Erraldoi eta buruhandiei esker, ekitaldi horrek «irudi esanguratsu bat» lortu dutela azaldu du elkarteak. Laburki, irundarren «irudimen kolektiboan» lekua egin dutela buruhandi eta erraldoiek, urtez urte udal jai egitarauan tokia izan baitute. «San Pedro eta San Martzial jaiekin lotuta, euren presentziak tradizio partekatu baten forma hartzen lagundu du, herritarren, erakundeen eta kultur elkarten artean», adierazi dute.

Duela ehun urteko jai egitarauari erreparatu diote Irungo Atsegiñako kideek, oroitzeko haien lehen parte hartzearen iragartzea. Jaien gida horretan lehenbizikoz agertu zen inizatiba kultural eta instituzional horrez gain, jasota dago *Juaristi doktorea* delakoak hitzaldia ere eskaini zuela garaiko Bellas Artes antzokian. Hain zuzen, *Erraldoiak eta buruhandiak* zuen izena saioak, eta elkarteko kideen arabera, proposamen hori ez zen kasualitatea izan. Izan ere, erraldoi eta buruhandiek 1925ean ere «jakin-mina» pizten zutenaren seinalea da iragarpen hori: «Ez dira soilik herriaren festaren parte, baizik eta balio sinboliko eta kultural propioa zuten elementu gisa, aztertu, hausnartu eta publikoari helarazteko modua izan zen».

Ehungarrena

Buruhandi eta erraldoiena festetan herriari eskaintzen dion «keinua» dela uste du elkarteak, eta «gastu eta baliabide guztiak» Irungo Atsegiñak

ALDAKETA
Psikogunea
PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZA
HAURRAK-NERABEAK-HELDUAK-BIKOTEAK
Olatz Elizondo Cuñado - PSIKOPEDAGOGOA -
Maite Elizondo Cuñado - PSIKOLOGOA -
Luis Mariano 4- 1.B - 20302 IRUN - 943 631 572 / 664 422 440

Gora Sanmartzialak!

**Irungo Alardea**
Tradizioak berdintasunez ere goza daitezke



Ondo pasa jaietan!
943 633 944 - DUNBOA 2 - IRUN



**Maiatzaren 24an
zortzi buruhandiak
aurkeztu zituzteneko
irudia da honakoa.**

Ane Mendizabal Sarriegi

hartzen ditu bere gain. «Denboran zehar elkartean parte hartu duten pertsonak elkarrekin partekatutako konpromisoaren adierazle da, Irungo bizi kolektiboan parte hartzeko borondatearekin», esan dute.

San Pedro egunean San Juan plazatik Junkal plazatzora egingo dute ibilbidea udal musika bandak, udalbatzako kideek eta Irungo Atsegiñaren erraldoi eta buruhandiek. Meza nagusiaren ondotik *Aurreskua* dantzatuko dute udalbatzakoek. Ibilbidera itzulita, sortu berri diren zortzi buruhandiek lehen aldiz hartuko dute parte ekitaldi horretan. Lehen aldiz konpartsa osoa berri-tuta irtengo da, buruhandi eta erraldoi zahar zein berriekin. Zaharren agurra ere izango da. Dena den, tradizioak bilakaera izan du, eta duela ehun urte haiekin batera joaten ziren ezpata dantzariak ez dira haiekin batera egongo.

Irungo Atsegiñako kideak «harro-tasunez» irtengo dira festetan kalera, haien esanetan hiriarekin partekatzen duten balioa aitortzeko eguna baita. Aurtengoa berezia izateko arrazoi gehiago ere badaude; Udal Musika Bandak Irungo Erraldoia 2025 saria jaso du aurtén, eta buruhandi berrien ama-bitxi da. Familia handi batek girotuko ditu kaleak. ■

GORA SAN MARTZIALAK!



txingudi
aholkularitza
Finka-administratzailea
Enpresa-aholkularitza eta orokorra

**FISKALA | KONTABILITATEA | LANEKOA | FINKEN ADMINISTRAZIOA
ZIURTAGIRI DIGITALA | ERRENTA AITORPENA | AUTONOMOEN ALTA | KIT DIGITALA**

Lamisingo Iturria 1, 3. solairua, 303. bulegoa. IRUN
Tel.: 943119758 – 943544753 Mugik.: 678578168 – 670439131



EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.bidasoaagenda



A. Aranburu

LEHEN TRAKA HANDIA, KUADRILLENA

HILAREN 21EAN. Aurten ere Betti Gottik eta Antxeta Irratiak antolatu dute Kuadrillen Eguna. 13:15ean kalejira hasiko dute Urdanibia plazatik, Ficobak bazkarira joan (14:30), eta hangoak eginda berriz ere kalebueltan itzultzeko erdigunera (20:30). Gazte giro bikaina izaten da.



Asier Kidam

MAGIAREKIN, POTEOA EUSKARAZ

HILAREN 22 ETA 27AN. Euskarak tarte magikoa izango du lehenengoz festetan. Magia-poteoak izango dira bi egunetan. Lehena 22an izango da, Asier Kidam magoarekin lilura, tragoskak eta euskara partekatzeko aukera izango dira 19:00etan San Juan plazatik hasita. Bigarren magia-poteoa 27an izango da, Kidam eta Eriz magoekin, Zabaltza plazan hasita.



A. Mendizabal

BASERRITARREN EGUNA, KLASIKO EDERRA

UZTAILAREN 1EAN. Baserritarren Eguna sanmartzialetako klasiko bat da. 08:00etan hasiko da ganadu feria, eta 10:00etatik aurrera kaleko musikaz, bertsolariez, herri kirolez eta giro ederraz gozatzeko aukera izango dute hala nahi dutenek. Nola ez, ekitaldi horiek guztiak Urdanibia plazak jasoko ditu. 18:00etan, fandango eta arin-arin txapelketa.



TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI

Zaindu ingurunea, ospatu gure jaiak!



www.txinzer.eus